

2013Ko
MEMORIA



PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ura da.
GU gARA.



1. Agurra	3
2. AURKEZPENA	4
3. URAREN EUSKAL AGENTZIA-URA	5
3.1. Eginkizunak.....	5
3.2. Xedea.....	6
3.3. Ikuspegia.....	7
3.4. Balioak.....	7
4. GOBERNU KUDEAKETA ETA AHOIKULARITZA ORGANOAK	8
4.1. Kudeaketa organoak.....	9
4.1.1. Eremuko zuzendaritzak.....	9
4.1.2. Arroen Bulegoak.....	9
5. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK	10
5.1. Plantilla.....	10
5.2. Uraren aurrekontuak.....	10
5.2.1. Ustiapen-aurrekontua.....	10
5.2.2. Kapitalaren aurrekontua.....	10
6. JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA	11
6.1. Hobetzeko jarduketak.....	11
6.1.1. EAEko Hornidura eta Saneamenduko Esparru Erregelamendua.....	12
6.1.2. Espediente Kudeatzailea garatu eta Uraren Kanonaren familia abian jarri eta Isurketa familiarik gelditzen ziren prozedura batzuk gehitu.....	12
6.1.3. Prozeduretarako manuala. Obra baimenak emateko prozedura Ur Jabari Publikoan eta zortasun eta ibilguen zaintza eremuetan.....	13
6.1.4. Ibilguak mantentzeko Zerbitzua. Izapidetze bakarra (3 lote) eta Tokiko Erakundeei gutunak igorri elkarlana sustatzeko.....	13
6.1.5. Landa lanak kudeatzeko tresna informatikoaren diseinua.....	14
6.1.6. Isurketa-analisiak kargatzeko baliabide informatikoaren diseinua.....	15
6.1.7. Urteko txostenak egitea 2.000 heq. baino gehiagoko hiriguneetako isurketen inguruan eta Saneamendu Sistemen Mapak.....	15
6.1.8. Isurketa errolda.....	15
6.1.9. Erantzukizunpeko aitortpena, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan.....	16
6.1.10. Batu Ur-Erabileren Inbentarioa Ur-Aprobetxamendu eta Uraren Kanonarekin.....	16
6.2. Lan-baimenak.....	17
6.2.1. Lan-baimenak UJPan eta zaintza-aldean.....	17
6.2.2. Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan.....	18
6.2.3. Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona.....	19
6.3. Isurketen arloa.....	20
6.3.1. Isurketa-baimenak.....	20
6.3.2. Ingurumeneko Baimen Bateratua.....	21
6.3.3. Isurketak Kontrolatzeko Kanona.....	22
6.4. Ur-aprobetxamenduak.....	23
6.4.1. Uraren Kanona.....	24
6.5. Ibilguak mantentzeko zerbitzua.....	25
6.6. Ikuskaritza arloa eta laborategia.....	27
6.6.1. Ikuskaritza-arloa.....	27
6.6.2. Laborategia.....	28
7. PLANGINTZA ETA LANAK	29
7.1. Plangintza hidrologikoa.....	29
7.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa.....	29
7.1.2. Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak.....	31
7.1.3. Informazio-sistemak.....	32
7.1.4. Diru-laguntzen lerroen kudeaketa eta lankidetzaren hitzarmenak.....	32
7.2. Ebaluazioa.....	34
7.3. Uholdeei aurrea hartzea.....	35
7.4. Lanak.....	36
8. KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	38
8.1. Ura-Uraren Euskal Agentziaren komunikazioa.....	38
8.2. Sentsibilizazio eta hezkuntza jarduerak.....	39
8.2.1. Online Ikastaroa: “Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta ingurumen-sentsibilizazioa”.....	39
8.2.2. URA Ekitaldea.....	39
8.2.3. Ibaiari buruzko ikasgelak eta dibulgaziozko hitzaldiak.....	40
8.3. Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak.....	40
8.3.1. Uraren Mundu Eguna 2013.....	40
8.3.2. “Uraren astea” Uraren arloko lankidetzaren nazioarteko urtean 2013.....	41
8.3.3. XXXII AEAS Jardunaldiak.....	42
8.4. Laguntzaile ekimenetan herritarrak sentsibilizatzeko.....	42
8.5. Nazioarteko lankidetzaren uraren arloan.....	42

1. Agurra

Adiskide maiteok.

Honen bitartez URA Uraren Euskal Agentziaren 2013 aldiko memoria aurkezten dizuet, urte hauetan egindako lan eta ekintza nagusiak biltzen dituena. URA Eusko Jaurlaritzaren erakunde bat da, Euskadiko ur-politika kudeatzeaz arduratzen dena. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago, eta Foru Aldundiek ere parte hartzen dute haren gobernu organoan.

Urte hauetan, Agentzia erreferentziazko administrazio bihurtu da dagoeneko EAEko uren arloan, eta, ildo horretan, politika modernoa bultzatu du, arazo nagusiak konpontzeko ingurumena zainduz eta parte-hartzean oinarrituz.

URA Agentzian dihardugunok memoria hau irakurtzera gonbidatu nahi zaitugu; behin irakurketa amaiturik, bidali ieazkiguzu, mesedez, zure iritzi eta iradokizunak, ezbairik gabe gure eguneroko kudeaketa hobetzeko lagungarri izango direlako.

IÑIGO ANSOLA KAREAGA.
ZUZENDARI NAGUSIA



2. AURKEZPENa



URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

URA sortu zen Europar Batasunaren Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunak betetzeko helburuarekin, hau da, 2015eko abenduaren 31a baino lehen azaleko zein lurpeko ur-masa guztiak egoera onean egon behar dutela aintzat hartuta. Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentarauea bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.

Uraren Euskal Agentziaren jardun-ildo nagusiek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea.
- Hornidura unibertuala lortzea, behar adinako kantitatean eta kalitatean.
- EAEren saneamendu-planak gauzatzea.
- Ura eraginkortasunez administratzea, behar adinako masa kritikoa duten ur-erakunde kudeatzaileen jarduna indartuz.
- Ur-baliabideak ikertzea eta era iraunkorren aprobetxatzea.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko jardunak egitea.
- Uraren eremuan berrikuntza teknologikoak sustatu eta bultzatzea.
- Informazioa eta prestakuntza, uraren kudeaketan inplikaturako giza baliabideen maila igotzeko.
- Nazioarteko ekimenetan laguntzea, uren arloan milurtekoaren helburuak lortzeko.



3. Uraren euskal Agentzia-ura

3.1 eginkizunak

Agentziak 1/2006 Legearen 7. artikuluan jasotako eginkizunak betetzen ditu, hau da:

- Lege horretan plangintza hidrologikoan jasotako tresnak egitea eta Jaurlaritzaren esku uztea, onartu, aldatu edo izapide daitezen eskumeneko agintarien aurrean.
- Erkidego arteko arroen estatu-plangintza hidrologikoan parte hartzea, araudi erregulatzailarekin bat etorritz.
- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzea, bereziki emakida eta baimen administratiboak emanez, baina baita jabari publiko hidraulikoa zainduz, ikuskatuz eta, era berean, araudi erregulatzaila hausten dutenak zehatuz.

- Bere jardun-eremuei dagozkien gaien xedapen orokorreki buruzko proiektuak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko agintariei bidaltzea.
- Estatuko Administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eskumenak.
- Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- Ur Erregistro Orokorraren antolamendu eta funtzionamendua.
- Eremu Babestuen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua.
- Kanon edo zergen aplikazioari buruzko azterlan eta txostena, indarreko araudiarekin bat etorritz.
- Indarreko legerian urei dagokienez ezarritako zergak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- Plan orokor, arau subsidiario, plan partzial edota plan bereziei buruzko txosten loteslea ematea, hasierako onarpenaren ostean. Txosten espezifikoak da, udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

babes eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa, eta ez dio kalterik egiten sektore- edota ingurumen-arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste lege batzuek ezarritakoari. Txostena aldekoa izango da baldin eta bi hilabeteko epean ematen eta jakinarazten ez bada.

- Jaurlaritzari uholdeak gerta daitezkeen eremuetan beharrezkotzat jotzen diren erabilera-mugak ezar ditzala proposatzea, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.
- Lehorretik itsasora isurtzeko baimena ematea.
- Itsas-lehorreko zortasuneko eremuetarako baimena ematea, eremu horiek zaindu eta ikuskatzea eta dagozkion zehapenak ematea.
- Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea.
- Lege eta erregelamenduek esleitzen dizkioten gainerako eginkizun guztiak, hornidurako, saneamenduko eta ureztatzeko politikari dagokionez bereziki, baita kudeaketa-organo eta erabiltzaile-komunitateen gaineko kontrola eta esleitzen dizkioten gainerako guztiak ere.
- Jabari publiko hidraulikoaren babesa eta kontserbazioa bermatzea, gai horretan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta.

3.2 xedea

- Agentziaren xedea da Euskadin uraren politika aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren tresna nagusia izatea, Uraren Esparru Zuzentzararekin bat etorritik. Horrek esan nahi du ur masen kalitatearen, kantitatearen eta egoera ekologiko egokiaren alde egitea, eraginkortasunez eta gainerako administrazioekin eta uraren erabiltzaile guztiaren elkarlanean.
- EAEko herritar guztiak ura behar adinako kantitatean eta kalitatean eskuragarri dutela bermatu behar du Agentziak, ingurumena zaindu eta errespetatzen duen esparru batean.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko ekintzak sustatu behar ditu.

	URA	Foru Aldundiak	Toki Administrazioa
• Plangintza	_____	_____	_____
• Baimenak eta emakidak	_____	_____	_____
• Zaintza eta zehapena	_____	_____	_____
• Kanonak eya tasak	_____	_____	_____
• Interes orokorreko obrak	_____	_____	_____
• Lurralde historikoetako interesgarriak	_____	_____	_____
• Hornidura eta sanfamendua	_____	_____	_____



URAREN AHOLKUA

Ikusi

3.3 IKUSPEGIA

- Politikak ezartzea: ura baliabide publikoa dela aintzat hartuz, uraren kudeaketa iraunkorra eginez, eta, une oro, premia handiena duten tokiekiko bidezko elkartasuna sustatuz.
- Zerbitzu-ematea: erabiltzaileenganako hurbiltasuna, bizkortasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta zerbitzura iristeko erraztasunak.
- Baliabide propioen kudeaketa: pertsonen garapenerako ekintzak ezartzea eta baliabide materialen kudeaketaren eraginkortasuna.
- Gizartearen alde egitea, ur baliabideari eta baliabidearen kudeaketari buruzko informazioa eta jakintza sortuz erabateko gizarte-erantzukizuneko ikuspegi batetik.

3.4 BALIOAK

- Prestakuntza-maila handiko profesionalen taldea.
- Talde-lana, koordinazioa, administrazio arteko lankidetzak, gardentasuna eta pertsonen parte-hartzea.
- Mugape hidrografikoen kudeaketa eta plangintzaren batasuna errespetatzea.
- Tratamendu eta plangintza integrala, uraren ekonomia, baliabidearen iraunkortasuna.
- Uraren kudeaketa publikoa lurraldearen antolamenduari eta ingurumenaren kontserbazio, babes eta berritzearekin bateragarri egitea.

- Prebentzio-politika, urak eragindako uholde eta hondamendien aurrean.
- Elkartasuna, erantzukizuna, eta uraren erabiltzaileak uraren erabilera eta kudeaketan eragindako kostuak ordaintzea.
- Jende guztiak ur-gaiei buruzko informazioa eskuragarri edukitzea.
- Ura merkatuaren legeez eta salerosketa libreaz aparteko ondasun publikoa delako iritzian oinarritutako politika.
- Hornidurako, saneamenduko eta arazketako zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman daitezela sustatzea.




4. GOBERNU, KUDEAKETA eta aholkularitza organoak

URA Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, 2006ko ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrak onartutako Uraren Euskal Legeak sortua. Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago, Eusko Jaurlaritzak 1994tik baitarama uraren arloan, hain zuzen ere transferentzia gertatu zen uneaz geroztik. Nolanahi ere esan beharra dago URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URA agentziak parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu:

Pantaila osoan ikusteko

- Erabiltzaileen Batzarra, Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alarreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELeK izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak biltzen dituena.
- Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hartzen dute parte.



4.1 Kudeaketa ORGANOAK

4.1.1. eremuKO ZUZENDARITZAK

Uraren Euskal Agentziaren lan arloak berraldatu egin dira 2013an. Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza desagertu egin da, bere barne zituena Komunikazio, Sentsibilizazio eta Lankidetzak lanak. Aurrerantzean, Sentsibilizazio lanak Plangintza eta Lanen zuzendaritzari dagozkio, Komunikazio lanak Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzari, eta Uraren arloko Lankidetzak lanetarako Lankidetzak Agentziarekin sinatutako hitzarmen batean jorratuko dira, beraiek izango baitira hemendik aurrera lan hauen arduradunak.

Horiek horrela, Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak hiru Zuzendaritzatan antolatzen dira gaur egun, zuzendari nagusiaren mende:


- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza.
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza.
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza.



4.1.2. Arroen BULEGOAK

Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoeko Arroen Bulegoa (Gasteiz).

Parte-harte eremuak eta initate hidrologikoak



5. Administrazioa eta zerbitzuak

5.1 PLANTILLA

Uraren Euskal Agentziaren lantaldea 2013ko abenduaren 31an, honako hauek osatzen dute :

KATEGORIA	2013/12/31n
Zuzendaritza Nagusia	1
Arloen Zuzendaritza-Bulego buruzagitzak	6
Teknikariak eta bitarteko agintariak	115
Administrariak	35
GUZTIRA	157

5.2 URAREN AURREKONTUAK

5.2.1. USTIAPEN- AURREKONTUA

GASTUAK	2013
LANGILEEN GASTUAK	8.190.568
FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK	7.578.794
GUZTIRA	15.769.362
SARRERAK	2013
EJren USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK	12.035.140
SARRERA PROPIOAK	3.734.222
GUZTIRA	15.769.362

5.2.2. KAPITALAREN AURREKONTUA

INBERTSIOA	2013
BEREZKO ONDASUNAK	10.002.212
BESTE ERAKUNDE BATZUETARAKO KUDEATUTAKO ONDASUNAK	6.816.668
HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	187.260
GUZTIRA	17.006.140

6. Jabari Publikoaren Kudeaketa

6.1 hobetzeko JARDUKETAK

2013. urtean zehar Jabari Publikoaren Kudeaketan 3 mugarri garrantzitsu izan ditugu: Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren araudiaren onarpena 200/2013 Errege Dekretuaren bitartez; Ibaien Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren onarpena, 449/2013 Errege Dekretuaren bitartez; Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzko Dekretua, 459/2013 Dekretuaren bitartez.

Beste alde batetik, 2013ko maiatzan 2/2013 Legea onartu zen, maiatzaren 29koa, itsasbazterren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa eta Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legea aldatzen duena.

Horrekin batera 2013. urtean, jabari publikoaren kudeaketa Zuzendaritzatik honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- EAEko Hornidura eta Saneamenduko Esparru Erregelamendua
- Espediente Kudeatzaila garatu eta, horrekin batera, Uraren Kanonaren familia abian jarri eta Isurketa familiarik gelditzen ziren prozedura batzuk gehitu
- Prozeduretarako manuala. Obra baimenak emateko prozedura Ur Jabari Publikoan eta zortasun eta ibilguen zaintza eremuetan.
- Ibilguak mantentzeko Zerbitzua. Izapidetze bakarra (3 lote) eta Tokiko Erakundeei gutunak igorri elkarlana sustatzeko.
- Landa lanak kudeatzeko tresna informatikoaren diseinua
- Isurketa-analisiak kargatzeko tresna informatikoaren diseinua
- Urteko txostenak egitea 2.000 biztanle baliokide baino gehiagoko hiriguneetako isurketen inguruan eta Saneamendu Sistemen Mapak
- Isurketa errolda
- Erantzukizunpeko aitortpena, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan
- Batu Ur-Erabileren Inbentarioa Ur-Aprobetxamendu eta Uraren Kanonarekin

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

6.1.1. EAERKO hornidura eta saneamenduko ESPARRU ERREGELAMENDUA

2012an zehar Hornidura eta Saneamenduko Esparru Erregelamendua aurkeztu egin zen, eraginda izan zitezkeen eragileei bidali zitzairen, eta haien ekarpenak jaso ziren.

2013 berriro ere eraginda izan daitezkeen eragile nagusiak kontuan izan ziren (Foru Aldundiak, hornidura eta saneamendu zerbitzuen erakunde kudeatzaile nagusiak, EUDEL) Bilera horien ondorioz Erregelamendua zehazteko lanak bultzatzea adostu zen eraginda izan daitezkeen eragile nagusiekin elkarlanean.

2013. urtearen bigarren erdian Lan-Taldearen estrategia eta plangintza diseinatu zen da 2014. urtearen lehenengo erdian Esparru Erregelamenduaren bertsio adostu bat izateko helburuarekin.

Prozesu honetan kontuan izan beharreko elementu garrantzitsuak gehitzen ditu 2013ko abenduan onartu zen Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak Esparru Erregelamenduak.

6.1.2. espediente kudeatzailea garatu eta uraren kanonaren familia abian

JARRI ETA ISURKETA FAMILIATIK GELDITZEN ZIREN PROZEDURA BATZUK GEHITU

2013an zehar hasi dira Espediente Kudeatzailean **uraren kanonaren familia** sartzeko lanak. Proiektuaren helburua da Uraren Euskal Agentziak informazio sistema bat izatea Uraren Kanonarekin zerikusia duten izapidetze prozedurak automatizatu eta hobetze aldera.

2013ko martxoan honako hauek ekoizpen prozesuan sartu ziren: **Ingurumeneko Baimen Bateratuak, eta Isurketen In-guruko Kontsulta eta Salaketak**. Horrekin Ekoizpen fasean sartu zen Isurketen familia osoa.

Azpitarratu beharra dago 2013a lehenengo urtea izan dela **isurketa eta jabari publikoa okupatzeagatik sortutako ka-nonak** Espediente Kudeatzailearen bitartez lortu direla.

Horrela amaitutzat eman zen, era berean, Kudeatzailea ezartzeko lehen proiektua, honako mugari hauekin:

- Obra eta Jardueren Familia: ekoizten 2011ko apiriletik
- Emakida eta Aprobetxamenduen Familia: ekoizten 2011ko uztailetik
- Zehapenen familia: ekoizten 2011ko urritik
- Isurketen Familia (UJP, LI, IBB)
- Baimena, Titulartasun aldaketa, UJP isurketen berraztertzea: ekoizten 2012ko martxotik
- UJP isurketen baimenen jarraipena: ekoizten 2012ko maiatzetik.
- Lehorretik Itsasorako Isurketak eta haien jarraipenak: ekoizten 2012ko uztailetik

- Ingurumeneko Jarduera Bateratuak: ekoizten 2013ko martxotik.
- Kontsulta eta Salaketak ekoizten 2013ko martxotik.

Horrekin batera 2013ko urrian amaitu ahal izan da **W63Evo12 Mantentze Ebolutiboaren** proiektua. Lan horrekin lortu ahal izan da hobekuntzak egitea jadanik martxan zeuden espediente familietan, orotara hamar funtzionalitate edo lan multzo suposatzen du:

- Aldaketa eta hobekuntzak Isurketa Baimenen Jarraipenean
- Agiriak ezabatu itxi diren espedienteetan
- Ikuskaritza izapideak
- Egoeren kontrola
- Erregistroarekin integrazteko prozesuan hobekuntzak egin
- Eremu Berriak Obra Eremuen entitateetan
- Aldaketak Kanonaren sorreran
- Aldaketak espedienteen aurkezpenean
- Hobekuntzak txantiloietan izen teknikoa jaso ahal izateko
- Plangintza eta Lanen Zuzendaritzarentzat Txosten Teknikoen izapideak egin.

Gainera 2013ko abenduan lortu da egokitzapena GISan dagoen informazio hidrologikoarentzat zehaztutako datu-egitura berrira eta hobekuntzak kokapenerako informazioan (lurraldea, udalerria,), berdina izan daitezen Kudeatzailearen familia guztietan, ekoizpen prozesuan Obren Familiaren kasuan, eta era berean, aldaketak sartu dira Obren espedienteak ixteko prozeduran, beste hobekuntza batzuekin batera.

6.1.3. Prozeduretarako manuala.

OBRA BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA UR JABARI PUBLIKOAN ETA ZORTASUN ETA IBILGUEN ZAINZA EREMUETAN.

Ur Jabari Publikoan eta zortasun eta ibilguen zaintza eremuetan Obra baimenak emateko prozeduraren azken bertsioa 2013ko uztailean idatzi zen.

Ondoren agiri hori URAREN Aholkularitza Juridikoarekin berraztertu egin da, eta 2013ko urrian aurkeztu egin zaie Obra Baimenen arduradun eta teknikari guztiei, haien ekarpenak jasotzeko.

6.1.4. Ibilguak mantentzeko zerbitzua.

IZAPIDETZE BAKARRA (3 LOTE) ETA TOKIKO ERAKUNDEEI GUTUNAK IGORRI ELKARLANA SUSTATZEKO.

Urtarrilaren 21ko Kontratazio Organoaren ebazpenak eman zion hasiera kontratazio-espedienteari eta otsailaren 4ko ebazpenak onartu egin zuen. Horrela hasi zen kontratua esleitzeko prozedura irekia, eta otsailaren 9an argitaratu egin zen Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean (EEAO).

Lehiaketaren izapidea era bateratu eta homogean egin zen, 3 loteko lehiaketa bakar batean: 1. Lotea, Mediterranean Arroena; 2. Lotea, Mendebaldeko Kantauriar Arroen; eta 3. Lotea, Ekialdeko Kantauriar Arroena. Zerbitzu horretarako 2 urteko epea zehaztu da, beste 2 urtez luzatzeko aukerarekin.

URAREN AHOLKUA

Ikusi

Eskaintzak martxoaren 27an aurkeztu ziren eta apirilaren 15ean eskaintza teknikoak ireki ziren, ekainaren 6an puntuazioa tekniko eman zen eta eskaintza ekonomikoak ireki ziren.

Uztailaren 1ean amaierako txosten tekniko egin zen eta esleipenerako ebazpenak abuztuan atera ziren 3 loteetarako. Hala ere, 2. Loteari helegitea jarri zitzaion, horregatik 1. Eta 3. Loteak irailaren hasieran jarri ziren abian, baina 2. lotea ez zen azaro arte hasi.

Esleipenak ondorengo osoko-balioengatik eman dira:

1. LOTEA: 928.598,01 euro;
2. LOTEA: 2.254.797,51 euros; eta,
3. LOTEA: 1.728.100,99 euro

3 lotetan zatitutako kontratu bakar baten (gaur egun 3 kontratu ezberdin dira, plegu eta epe ezberdinekoak) lizitatzearen helburua da plegu bakarrak eta epe berberak izatea, horrela kontratazioaren izapidetzea erraztu eta zerbitzuan garatu beharreko gai nagusietarako irizpide berberak hartzea ahalbidetuko baita:

- Jarduketa bereziak edo proiektuak
- Programatutako mantentze-jarduketak
- Landaketak
- Espezie inbaditzaileak kentzea
- Ezustekoak

Halaber, erregistroan 2013ko azaroaren 29ko irteera datarekin URAK EAEko tokiko erakunde guztiei bidali zien ondorengo jakinarazteko:

- Ibai-ibilguen mantentze eta berreskuratze zerbitzua existitzen dela eta zerbitzu horrek dituen helburuak

- Tokiko Administrazioak duen erantzukizun-partekatua hiriguneetako ibai-ibilguen mantentzeko ekintzetan, hirigintzan eskumenak dituen heinean, 10/2001 Legearen 28. Artikuluak ezarritakoari jarraiki.

Gutun horretan URA elkarlanerako prest agertzen zitzaizen Tokiko Administrazioei, ekintzetan era bateratuan jardute aldera.

6.1.5. Landa Lanak Kudeatzeko Tresna INFORMATIKOAREN DISEINUA

Tresna honen helburu nagusia da isurketa, obra, emakida edo uraren kanonaren ikuskaritzari dagozkien landa-lanen erregistroa zentralizatzea: bai emandako baimenen baldintzak betetzen dela bermatzeko egiten den jarraipenean, bai baimenik gabeko eraginak antzematean. Horrekin batera Ikuskariak landa lanetan PDaren bitartez jasotako datuak bildu behar ditu.

Ondoren zerrendatzen dira Sistemaren helburuak, honako lan hauek modu eraginkorragoan egiteko balioko duena:

- Isurketa, obra eta emakida **espedientei loturiko ikuskapenen urteko plangintza egitea**, Espediente kudeatzailean bildutako informaziotik abiatuta.
- Ikuskaritza lanen informazioa jaso eta bildu, hala bisitaren datu orokorrak, nola ikuskaritza mota desberdinen datu teknikoak eta txosten propioak.
- UJP-an antzematen diren baimen gabeko jardueri buruzko informazioa** jaso eta bildu, bai datu orokorrak, zein horiei loturik dauden datu teknikoak.

🗨️ **Bildutako informaziora sarbidea erraztu**, datu-kudeaketa ahalbidetzeko.

🗨️ **Beste sistema batzuekin uztartzeko** bideak eskaini (Adibidez: Sistema analitikoak, Espediente Kudeatzailea, GIS, Erakundeen kudeatzailea). sistema horren datuak erabiltzen dituzten beste sistementzat edo zehaztatutako kudeaketarako beharrezkoa dituzten datuak beste

Tresna hau 2014ko lehenengo seihilateberako ekoizpenean egotea aurreikusten da.

6.1.6. ISURKETA-ANALISIAK KARGATZEKO BALIABIDE INFORMATIKOAREN DISEINUA

Irailean hasi genuen Isurketen Analisisak Kargatzeko Atari Pribatuaren Informazio Sistema proiektua sortzeko azterlana, diseinua eta prestaketa, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearekin (EJIE), laburtzeko “Isurketen analisisien karga”.

Helburu nagusiak honako hauek dira:

🗨️ Abian jarri sarbide bakarra kanpoko erabiltzaileentzat URaren web berrian argitaratu litezkeen aplikazio berrietara.

🗨️ URaren analisisien emaitzen karga eraginkorra.

Proiektu hau hertsiki loturik dago honako tresna informatikoekin:

🗨️ Espediente Kudeatzailea

🗨️ Uraren Web-orri berria (eraikitzen)

🗨️ Platea fitxategi kudeaketa

🗨️ OBI kudeaketa (etorkizunean eraikiko dena txostenak eta kontsultak egin ahal izateko)

Tresna hau 2014ko lehenengo seihilateberako ekoizpenean egotea aurreikusten da.

6.1.7. URTEKO TXOSTENAK EGITEA 2.000 HEQ. BAINO GEHIAGOKO HIRIGUNEETAKO ISURKETEN INGURUAN ETA SANEAMENDU SISTEMEN MAPAK


2013 urtetik aurrera urteko txostenak egiten dira 2.000 biztanle baliokideko baino gehiagoko aglomerazioetan ematen diren isurketei buruz. Txosten horiek honako informazio hau daukate:

- Saneamendu sistemaren deskribapen orokorra.
- Isurketaren Baimena.
- Ingurune hartzailearen ebaluaketa

Halaber, 2013an zehar EAEko Saneamendu Sistemen Maparen lehenengo bertsioa sortu da (2.000 biztanle baliokidetik gorakoak).

6.1.8. ISURKETA ERROLDA

2013. urtean, Isurketa Familia Espediente Kudeatzailean ezarri eta tresna horretara Isurketa-espeditentak ekarri ondoren, Isurketa Errolda ematen da Espediente Kudeatzailearen bitartez.



6.1.9. erantzukizunpeko aitorpena, itsaso eta

LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOAN

2013. urtearen bigarren seihilabetean zehar Erantzukizunpeko aitorpen ereduak sortu da itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babesgune eta zortasun eremuan dauden eraikuntzetan edo instalazioetan konponketa, hobekuntza, finkatze eta berrikuntza obrak egiteko. Horixe da, hain zuzen ere, maiatzaren 29ko 2/2013 Legeak babesgune eta zortasun eremuari buruz dakarren berrikuntza nabarmenena (itsasbazterren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa eta Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legea aldatzen duena).

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

6.1.10. ur-erabileren inbentarioa BATU UR-APROBETXAMENDU ETA URAREN KANONAREKIN

2013. urtean zehar aurrera egin da Ur-Erabileren Inbentarioak bat egiteko Ur-Aprobetxamendu eta Uraren Kanonarekin.

Integrazio horrek ahalbidetuko du informazio esanguratsua eskuragarri izatea, adibidez: ur-aprobetxamenduak behar bezala legeztatuta dauden, emakidaren baldintzak betetzen diren eta Uraren Kanonari dagozkion kopuruak ordainduta dauden.



6.2 obra baimenak



2013. urtean zehar, baimenen arloko 4 koordinazio-bilera egin dira.

6.2.1. Lan-baimenak UJP-an eta ZAINZA-ALDEAN



Lan-baimenen helburu nagusia zera da: jabari publikoan edo horren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egikaritzeko baldintzak ezartzea, ur-masak hondatzea saihestuz eta hobe daitezen ahaleginduz, betiere uholde-arriskugarritasunarekin uztartuz.

Halaber, arroen bulegoetako arduradunek baimenak izapidetzen dituzte, eta kontrola eta jarraipena egiten dute administrazio eta partikularrek jabari publiko hidraulikoan eta ibilgu-zaintza eta -zortasuneko eremuetan egindako jardun eta obrei dagokienez.

2013. urtean lanak egiteko 574 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 526 ebatzi. Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 455 kontsultari eman zaie erantzuna, aldeztatik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

URAREN AHOLKUA

Ikusi

Gainera, arroen bulegoek guztira 40 hirigintza-txosten egin dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzunez edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzunez, eta 37 ebatzi dira.

2013. urtean Mediterraneoko arroetako bulegoak nabigazioko 91 erantzukizun-aitorpenen jaso ditu. eta beste 2 Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoan.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 117 salaketa jaso dira guztira.

Indarreko legegintza-esparruaren barruan, 26 zehapen-espeditente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.


Zeregin horiez gain langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko egindako lan ugariak izan dira.

6.2.2. Lan baimenak ITSAS LEHORREKO ZORTASUN-EREMUAN

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzen dituzte eta administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuei dagokienez egindako lana eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute.

Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.

2013. urtean 97 espeditente hasi eta 44 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 185 kontsulta-espeditente eta txosten-eskera hasi eta 93ri eman zaie erantzuna, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.





Bestetik, 20 salaketa jaso dira guztira partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruzkoak.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, 5 zehapen-espeditente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik eta/edo itsas-lehorreko jabariari eta loturiko tarteei eragiteagatik.

6.2.3. UR JABARI PUBLIKOAK OKUPATZEAGATIKO KANONA


Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako kanona likidatzen du.

2014. urtean, 2013ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 133.140 € bilduko direla aurreikusten da.



*2012tik aurrera datuak espediente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

BA AL ZENEKIEN...?



*2012tik aurrera datuak espediente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

Ikusi

6.3 Isurketen arloa




6.3.1. Isurketa-baimenak

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.

2013. urtean zehar isurketa-baimenen arloaren 3 koordinazio-bilera egin dira. Ibilgu publikora isurtzen duten edo lurrera iragazten diren arazketa-sistemak ikuskatzen jarraitu dute Uraren Euskal Agentziaren Arroen Bulegoek.

2013an isurketak baimentzeko edota berraztertzeko edo titulartasuna aldatzeko (indarraldia iraungitzean) 259 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute. Bestalde, 235 isurketa-baimen ebatzi dira.





6.3.2. INGURUMENeko BAIMEN BATERATUA

Bestetik, ingurumena oro har babesteko helburuarekin Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen 16/2002 Legea aplikatuz, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean, hala hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan nola ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.

2013an zehar ingurumen-baimen integratuaren 11 ebazpen-proposamenetan berritan parte hartu dugu, eta beste 11 ebatzi dira, isurketa UJP edo ILZra egiten dutenak., eta horien jarraipena egiten ari gara.


URAREN AHOLKUA

Ikusi

Horrez gain partikular, administrazio edo enpresen 48 kontsulta jaso dira eta 22 erantzun, aurretik aipatutako arloetan egin beharreko ekintzei buruz. Beste alde bate-tik, partikularren 132 salaketa jaso dira lanak administra-zio-baimenik gabe egikaritzeagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

2013an Arroen bulegoek 30 zehapen-espeditente irekitze-ko proposamena egin dute, isurketen arloko beren esku-men-eremuaren barnean indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera ekintza hauen jarraipena egin da: 1715 isurketa-baimenena, hondakin-uren araztegien (HUA) us-tiaketa-txostenenena, batez ere 2.000 biztanle baliokide-tik gora duten aglomerazioetarako eta kontuan izanda.



*2013tik aurrera datuak espeditente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

BA AL ZENEKIEN...?


Ikusi



6.3.3. ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA

Ur Jabari Publikora egiten diren isurketei Isurketak Kontrolatzeko Kanona ezartzen zaie. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arrozen kanona baino ez du likidatzen.

Jarraian, Isurketaren Kanonaren bilakaera azaltzen da.



6.4 Aprobetxamenduak

Ur-aprobetxamenduetarako emakidek zera lortu nahi dute, jabari publikotik ura hartzeko zer baldintza bete behar diren ezartzea, lehenetasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.


2013. urtean Emakiden Arloaren 4 bilera egin dira.

Mendebaldeko eta Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute. 2013. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 44 espediente berri hasi dira.

Bestalde, epealdi berean 40 erregularizatze-espediente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 34 espediente abiarazi dira epealdi honetan.

Azkenik, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, partikularren 10 salaketa jaso dira eta espediente zehatzaile 1 ireki da ur-aprobetxamenduarekin lotuta



6.4.1. Uraren KANONA

EAEen uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek plangintza hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEen, uraren erabilerak ingurumenari eragin ahal diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarriko zaie kanona:


- Hirugarren batzuek erabiltzaileari zuzkitutako ur-kontsumoari.
- Lurrazaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.

Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa kontsumitutako m³ bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera ere badira, eta horien artean nabarmenena etxeko erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa), eta gainera, hobariak ere eska daitezke, hainbatetan zerga-oinarriaren %95era iristen delarik.

6.4.1.1. BILDUTAKO DIRUA

2014. urtearen hasieran, guztira 801.419,56 €. iristen dira 2013. ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbatekoa gutxi barru nabarmen handitzea, aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2013ko ekitaldian guztira 2.809.520 €. bilduko direla uste baita.



(*1) Aurreikusitako kopurua behin urteko jarduera bukatutzat eman eta gero.

(*2) Aurreikusitako kopurua oraindik urteko-jardueraren ordaintze epea irekia baitago.

6.4.1.2. Uraren erabileren INBENTARIOA

Uraren Euskal Agentziaren Uraren Erabileren inbentarioan biltzen da EAE mailan uraren aprobetxamenduaren inguruko informaziorik esanguratsuena, kontuan izan gabe bere egoera administratiboa edo eskumen-eremua. Helburua da kotsultak egin ahal izatea eta lortutako informazioa esportatzea.

IUAk lotura dauka, Espediente kudeatzaileko Aprobetxamendu eta Uraren Kanonaren familiekin. Horrek esan nahi du bertan biltzen dela aprobetxamendu bakoitzari dagozkion espediente zenbakien inguruko informazioa.

6.5 Ibilguen mantentze ZERBITZUA


Ibilguen Mantentze Zerbitzuak egin beharreko lanen Urteko Plangintza egin da. Koordinazio bileratan hitzegindako gai nagusiak honako hauek izan dira:

- 2012. urtean egindako jarduketaren txostena.
- Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2013. ekitaldirako programa.
- Jarduketaren lehentasuna Euskadi barruko Arroen Plan Hidrologikoaren arabera ezartzea.
- Beste administrazio batzuekiko koordinazioa, eta bereziki espezie inbaditzaileak eta landaketak kentzeko proiektuetan.
- Mantentzeko kontratu bateratua esleitzea.


2013an zehar zerbitzuaren esleipen bakarra lortu izana, hiru lotetan banatua, lan hauetarako ziurtagiri gutxiago egin beharra ekarri du, guztira 2.277.315ko aurrekontuarekin.

Aurrekontuaren %29,14 ekosistemen hobekuntzarako ekintzetan inbertitu da (ingurumena lehengoratu, landaketak, inbaditzaileak eraztea) eta %70,86 uholde arriskugarritasuna murriztera bideratutako ekintzetan (programatutako mantentzea eta ezustekoak).


URaren inborsioa ibilguen mantentzean




Arroko bulego bakoitzak ibilguak garbitzeko egindako jarduketan banakapena



Mendebaldekoak



Ekialdekoak



Mediterranearrak

6.6 IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA

6.6.1. IKUSKARITZA ARLOA

Urak ikuskatzeko arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: **UR**ako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

2013. urtean, ikuskatze-zerbitzuak honako lan hauek ikuskatu ditu, besteak beste: hiru lurralde historikoetan abadura handiko trenbidea eraikitze lanak, Urretxuko saihezbidea eraikitze lanak, Arabako Bailaretako lur ureztatuak, zein EAE osoan ibilguak mantendu eta lehengoratzeko lanak.


Nabarmentzekoa da, halaber, SOS Deiak erakundea abisuen arretaren arloan egiten ari den lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko eta eguneko edozein ordutan, lanegun edo jaiegunetan eskaera guztiei erantzunez. Gutxi gorabehera horrelako 180 abisuri eskaini diete arreta.

URAREN AHOLKUA

Ikusi

SOS Deiak-en abisu kopurua

Pantaila osoan ikusteko



Ur-ikuskatzaileek Jabari Publikoak jasaten dituzten presioen jarraipena egin dute: obrak eta jarduerak, isurketak edo ur-aprobetxamenduak.

Halaber, ikuskaritza zerbitzua obra baimenen eta emakiden jarraipen eta erregistroan jarduten da.

Mantentze zerbitzutik egindako ekintza ororen etengabeko jarraipena egin dute, eta baita ibilguen mantentzerako ekintzak proposatu ere.

Azkenik, jabari publiko edota itsas-lehorreko zortasun eta babes eremuan antzemandako edozein kalteren erregistroa egin da.

6.6.2. Laborategia

2013. urtean, URAK Lasarten duen laborategian 1092 lagin aztertu dira guztira.

Horietatik 690 Ekialdeko Kantauriko Arroei dagozkie, horietatik 479 laginketa programatuetatik ateratakoak, 173 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen inguruakoak eta 38 ohiz kanpoko isurien ondorio dira.


Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremutik 402 lagin aztertu dira, eta horietatik 173 laginketa programatuetan eginak, 212 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen inguruakoak eta 17 ohiz kanpoko isurien ondorio dira.

Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, 05EB, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokaburoak, guztizkoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Administrazio hidraulikoaren Erakunde Lagun baten zerbitzuak kontratatu dira Mediterraneoan Arroetako Bulegoko langileek hartutako hondakin-uren laginen karakterizazio analitikoak egiteko. Erakunde horren bitartez 547 lagin aztertu dira, eta horietatik 115 laginketa hiri-aglomerazioetako laginketa-planen inguruakoak dira.


Aztertutako Laginak

URAREN laborategia vs kanpoko laborategia



Aztertutako laginak

Laginketak guztiak vs programatutakoak




7. PLANGINTZA eta LANAK

7.1 PLANGINTZA HIDROLOGIKOA

7.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARNEKO ARROEN PLAN HIDROLOGIKOA

2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarauak urak kudeatzeko printzipio berriak ekarri ditu, ur-sistemen egoera ona lortzea eta eskaerei behar bezalako erantzuna ematea uztartuz, uraren arazoizko kudeaketa eraginkorra eginez eta plan hidrológico berriak aplikazio-ardatz gisa hartuz. Arro bakoitzerako plan bat egin behar da, aipaturako helburuak betetzeko jardun guztiak biltzen dituen, eta tartean, ur-masetarako zein demarkazioan barne hartutako eremu babestuetarako ezarritako helburuak lortzeko beharrekoak diren xedapen arau-emaileak eta jarduketak barne hartuta.



Uraren Euskal Agentziak, UEZ eta Euskal Autonomia Erkidegoko Urei buruzko Legean jasotako jarraibideak betez, 2013. urtean zehar 2009-2015 ziklorako **“Euskal Autonomia Erkidego Barruko Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa” onartu zuen, Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bitartez.** Horrela amaitu da plangintzarako agiri horren izapidetzea Eusko Jaurlaritza beste erakunde batzuekin batera (foru- eta toki-administrazioekin, uraren zerbitzuetako erakunde kudeatzaileekin eta Gobernu Zentralaren menpeko erakundeekin, horien artean Kantauriko Ur Konfederazioarekin eta Itsasertz Mugartearekin) eraginkortasunez elkarlan estuan luze aritu ondoren. Gainera, hiritarrek ere eraginkortasunez esku hartu dute horretarako ezarritako bide ezberdinen bitartez, eta tartean, sare sozialek eta Internetek eskaintzen duten hedapen zabalaz baliatuz, zein Proiektuaren fase ezberdinak egiteko berrogeita hamar bat tailerretan esku hartuz. Euskadin 1994an ur arloko eskumena transferitu zenetik formalki egin den lehen plan hidrologikoa da.

Plan honen helburu nagusiak hiru atal handitan sailka daitezke:

1. INGURUMEN-HELBURUAK:

Sistema urtarren narriadurari aurrea hartzean eta horien egoera egokia lortzean datzate. Ur-masei dagozkien ingurumen-helburua ez ezik, ingurune urtarrari lotutako eremu babestuen presentzia ere izan da kontuan, beren zaintzarako eskakizun gehiago eduki ahal dituztenean edo bere ingurumen-helburuak ur-masenen gehigarriak direnean.

2. UR-ESKARIA BETEKO DELAKO BERMEAREN HOBEEKUNTZA,

eta bereziki, hiri-hornidurak, kalitate eta kantitatearen bermeak areagotuz, eta beren erabilerak ingurumenarekin bat eginez arrazionalizatuz. Azken batean, ur-eskariaren gogobetetasun egokia eta ingurumen-helburuen lorpena bateragarri egitea lortu nahi da.

3. UHOLDEEK ETA LEHORTEEK ERAGINDAKO KALTEAK GUTXIAGOTZEA.

Plan Hidrologikoa jasotzen duen planteamenduak garatzen ditu europar zuzentzarauaren uholde-arriskuari buruz dituen betekizunak, eta bateratzen ditu arriskuaren prebentzioan oinarritutako ikuspegia (prebentzio-neurriak edo egiturazkoak ez direnak) eta finkatutako hiriguneetako uholde-arriskua txikiagotzeko beharrezkoak diren jarduketak (egiturazko neurriak), halaber kontuan izanda neurri horiek ingurumen-helburu berriekekin bateragarri izaten saiatzeko diseinatu direla.

Aurretik aipatutako helburuak, ekosistema urtarrak luzaroan babestean eta uraren zentzuzko gestioan eta erabilera eraginkorrean oinarrituta daude.

Plan Hidrologikoa honek lortu nahi dituen helburuak erdietsi ahal izateko bi tresna nagusi ditu:

- Batetik, Araudia, zeinak ekosistema urtarrak eta horien ingurunea gehiago narriatzea galarazteko eta baliabideen kudeaketa egokia bermatzeko eta ur-masak eta, oro har, ingurune urtarra, hiritarrak eta bere ondasunak babesteko helburua baituen.
- Bestetik, Neurrien Programa. Programa horrek administrazio ezberdinek jarduketa zehatzak burutzeko hartu duten konpromisoa jasotzen du, eta horiek burutzean aurreko helburuak beteko baitira. Horrela, hasiera batean (2015ean) ur-masen %80an lortuko lirateke ingurumen-helburuak eta gainerakoetan bigarren fasea batean (2021).

Plan Hidrologikoa honetan jasotako jarduketek eta neurriek 1.168.743.912 eurotako aurrekontua dute 2009-2015eko epealdirako, eta beste 1.621.978.490 eurotako 2015-2021 epealdirako. Neurri horien finantzazioa administrazio ezberdinen artean banatuta dago: %23 Estatuko Administrazio Nagusia, %23 URA/Eusko Jaurlaritza, %22 Foru Aldundiak eta %21 Partzuergoak eta Mankomunitateak).

Plana burutzeko uztartu dira, alde batetik, Estatuan plangintzari buruz zegoen tradizio luzea, eta, bestetik, 2000/60/EE Zuzentzarauaren baldintza berriak, eta berrikusi egin beharko da 2015ko abendua baino lehen. Berrikuspen prozesu horrek ondorengo etapak izango ditu, dagoeneko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin batera abian jarri direnak.

- Aurreko lanen berrikuspena: Hasierako Dokumentuak (lan-egitaraua, demarkazioaren azterketa orokorra eta parte-hartze publikoaren prozedurarako kotsulta bideak) Agiri horiek sei hilabetez kontsulta publikora zabaldu ziren, 2013ko maiatzaren 25tik azaroaren 25ra eta Erabiltzaileen Batzarrak onartu egin zituen 2013ko abenduaren 19an.
- Uraren kudeaketarako Gai Nagusien Behin-Betiko Eskemaren birpasoa. Bertan zehazten dira Demarkazioaren arazo nagusiak eta eman daitezkeen konpobide desberdinak. Agiri hau hasieran URAREN Administrazio Kontseiluaren onarpena jaso zuen 2013ko abenduaren 19an. Sei hilabetez kontsulta publikoa 2013ko abenduaren 30an hasi zen, eta 2014an zehar behin-betiko onarpena izatea espero da.
- Plan Hidrologikoaren Proiektuaren birpasoa. 2015rako aurreikusten da.

7.1.2. Ur-masen egoera

EKOLOGIKOAREN JARRAIPENA EGITEKO SAREAK

2013. urtean, orobat, EAEko ur-masen egoeraren **jarraipen-sareei** dagokien ustiapenarekin jarraitu da, eta honako proiektu hauei dagozkie.

- EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko barrualdeko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko lurpeko uren kontrol-sarea.

Halaber, eremu babestuen gaineko jarraipenak hasi dira 2013. urtean:

- EAEko Barneko Arroen uren kontrol-sarea: gizakion kontsumora bideratutako ur ekoizpena, Giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpideak ezartzeko otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuko betekizunen ondoriozkoa.
- Kostaldeko bainurako eremuetako kontrol bakteriologikoa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuko betekizunen arabera, eta 2011n Euskadiko kostaldeko bainurako urretan ezarritako profilekin.

Sare horien helburua ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da, horiek guztiak UEZek ezarritako kontrol-eskakizunak betez lortuta.

Informazio horrek honako hauek ahalbidetzen ditu: egoera ebaluatzeko sistemak bideratzea, ingurumen-helburuak ezarri edota berrikustea, Plan Hidrologikoetan ezarritako neurrien programak ebaluatzeko, Europako Batzordeak sustatutako interkalibrazioko europar prozesuan esku hartzea eta, gainera, beste arlo batzuetarako kontsulta-tresna gisa erabil ahal izatea, eta bereziki jabariaren kudeaketan eta ebaluazioan.

Jasotako informazioarekin, OSPAR Hitzarmenaren inguruko txostenak, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programaren ingurumen-adierazleen aldeko txostenak, zein Estatu edo Europa mailan informazioa biltzeko betekizun batzuk landu dira..

Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela erabaki den eremuetan **jarraipen bereziak** egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen laguntzarekin (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe, etab.). Hartara, arazo zehatzak dituzten gainazaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehaztuak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Loiolan, etab.

Zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) inguruko lanekin jarraitu dugu. Lan horiek, EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen eta koordinazio Batzordearen jarduera barruan burutu dira. Egindako lanen artean: EAeko ur masetako zebra muskuiluaren larbak eta ale helduen kontrola, espezieak tokiko ur-gezako kuskubiko (nayadeak) populazioetan duen eragina aztertzea, espezie honek eragindako ur-masetan egiten den nabigazio eta beste jarduera batzuk arautu eta ikuskatu. Horiekin batera azpimarratzekoa da **EAEn Zebra muskuiluaren hedapena kontrolatzeko ekintzen plana 2013-2015**, bertan laburtzen dira administrazioak abian jarriko dituen ekintzak espezie honen hedapena kontrolatzeko eta eragiten dituen kalteak murrizteko

7.1.3. Informazio- SISTEMAK

2013. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA-URA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu dugu. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabaldutako datu eskuragarriak areagotu dira.

Halaber, aplikazio informatiko guztietara moldatuko den informazio geografikoko bisore baten bitartez, informazio geografiko eta alfanumerikoa integratzeari ekin zaio URak dituen datu-mantentze aplikazio guztientzat. Horiekin batera URaren datu base korporatibo bat sortzeko lanei ekin zaie, bertan zeharkako datu entitate guztiak kokatuko dira.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziaren ibai-ikuskatzaileei tokian bertan informazioa jasotzeko gailu eramangarriak eman zaizkie. Tokian bertan informazioa kontsultatzea zein datuak biltzea ahalbidetzen duten PDA motako ordenagailu eramangarriak dira. Gailuek, gainera, geokopakenerako GPS tresna dute, eta baita argazki- eta bideo-kamera edo datuak GPRS bidez bidaltzeko aukera ere.

Horiekin batera, Euskadiko uren egoerari buruzko informazio-sistema (EUEIS) berriaren garapena abiarazi da. Horren bitartez, gure autonomia-erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazioa gorde eta teknikarien eta herritar guztien eskura datu horiek kontsultatzeke tresna jarri nahi da.

Informazio geografikoa koordenatu-sistema berrira (ETRS89) egokitzeko lanak hasi dira, 2015an ezinbestekoa izango baita betetzea. Horrek, informazio geografikoaren geruzetan koordenatu-sistema zein koordenatuak tauletan eta datu-baseetan aldatzea eskatzen du.

7.1.4. DIRU-LAGUNTZEN LERROEN KUDEAKETA ETA LANKIDETZA-HITZARMENAK

2013. urtean bestelako lankidetzak-hitzarmenak sinatu edo garatu dira ondorengo erakundeekin, oro har, ekosistema urtarrek babestu edota hobetzeko helburuekin:

- Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI - Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzak-hitzarmena, besteak beste, honako helburu hauekin: EAeko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzeko, EAeko

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemak narriatzea prebenitzeko eta horien egoera hobetzeko, eta EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako kostaldeko eremuen kudeaketa hobetzeko ekintzak burutzeko. Hitzarmen honen barruan, 2013rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira:

- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- Zostera berreskuratzeko lanak.
- Biodibertsitatea eta ingurumen-egoera Europar Itsas-Estrategiaren Zuzentarauan: DEVOTES Proiektua.
- Euriak eragindako epe laburreko kutsaduren analisia EAEko kostaldeko bainurako eremuetan.
- Trantsizio eta kostaldeko egoera kimikoaren ebaluaketa erabiltzen diren laginketa pasiboko gailuentzat kalitate estandarren garapena.
- Biomarkatzaileen integrazioa kutsatzaileek euskal kostaldeko arraintan izan dezaketen eragin biologikoen diagnosian.
- Angulak lekuz aldatu EAEko bi arrotan

🌿 Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema urtarrak babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko lankidetzaren protokolo orokorraren helburua da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema urtarrak babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko neurriak modu koordinatuan, adostuan eta eraginkorrean lehenetsi, proiektatu eta gauzatea ahalbidetuko duen lankidetzaren esparru egonkorra ezartzea.

🌿 “Pirineotako mendebaldeko muturreko mugaz bestaldeko erreken tokiko partehartze-kudeaketa integrala” proiektua GURATRANS, POCTEFA 2007-2013 Programan kokatua. Proiektu honetan EAEko administrazioek hartzen dute parte, (URA, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hazi), Nafarroako Foru Erkidegoa (Nafarroako Gobernuak, Crana Fundazioa) eta Iparraldekoak (Agglomération Sud Pays Basque, Agence de l’eau Adour-Garonne)

eta era bateratuan burutzen dituzten plan hidrologikoetan dauden hainbat neurri, indartuz horrelako esparruek dakartzaten hobekuntzak eta sustatuz erakunde eskudun guztien koordinazio egokia eta herritarren parte-hartzea. Ekintzak mugaz-gaindiko eta erkidego arteko bost ibaitan kokatzen dira: Bidasoa, Nivelle, Urumea, Araxes eta Leizaran.

Proiektuak EAEn dituen ekintzen artean, ingurumenerako izango dituen ondorioengatik, Inturiako presaren eraispena azpimarratu behar da, Leizaran ibaian; lan horren lehenengo fasea 2013an egin da. Horrez gain, lurralde bakoitzean uraren kudeaketa eman diren esperientziak edo jardura egokiak biltzen dira eta uraren alorrean sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzeko ekintzak aztertzen dira edo eraginkortasunera eta ur kontsumoa murriztera bideratuak, ibai-ekosistemen narriadura ekidite aldera.

🌿 Life Tremedal Proiektuak xede du Iberiar Penintsulako iparraldeko hainbat hezegune kontinental babestea. Ekintzak egiten dira ezagutza hobetzeko, lehengoratu eta mantentzeko eta gizartea informatu eta sentsibilizatzeko. Uraren Euskal Agentziak proiektu honen barruan parte hartzen du Arreo-Caicedo Yusoko Lakuko LIC-aren ingurunea lehengoratzen eta lan horretan kide ditu Arabako Foru Aldundia eta HAZI.





7.2 ebaluazioa

Ebaluazio arloan jarraitu egin da hainbat agiri eta proiekturen analisi eta txostenekin bermatze aldera bat egiten dutela Administrazio Hidrauliko honek ezarri beharreko araudiarekin. Lan hori Jabari Publikoaren Kudeaketaren Zuzendaritzarekin elkarlanean egiten da eta hurrengo izapide hauek izan dira egindako nagusiak:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena egitea.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua I letrari jarraiki (*Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan berezietan buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera*).

- Antolamendu estrukturalerako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua k) letrari jarraiki (*Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan berezietan buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera*).
- Hirigintza-espeditenteen txostena udalen behin-behineko onespeneren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espeditentea behin betiko onartu baino lehen.
- Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, uholde-arriskuaren kudeaketa eta abar.

Horrela, ebaluazio-arloaren 2013. aldiko jarduera honako datu hauetan laburbil daiteke azterturiko espeditenteen zifrari dagokionez, eta kontuan izanda espeditente kudeatzailea abian jarri dela:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin (IEC) loturiko 126 espeditente, batez ere aprobetxamenduen administrazio-erregularizatzearekin, plangintza hidrologikoarekiko onespeneren txostenekin, eta abar.

- Ingurumen eta hirigintzari (IHT) buruzko 138 espediente, azken kasu horretan txosten fasearen aurrekarietan Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordearen esparruan.
- Hirigintza planteamenduen berrazterketari loturiko 73 espediente Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordearen esparruan, espedientea behin betiko onartu baino lehen.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako 145 erantzun, hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola: ingurumena, legeak, uholdeetako arriskuak eta abar.

Bestalde, Ebaluazioaren arlo honetatik burututako beste jardueretako bat Uraren Euskal Agentziaren Lanen Arloari ondorengo obretako ingurumen-arloko izapideak egiten laguntzea izan da:

- Donostiako Martutene auzoaren parean, Urumea ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Getxon (Bizkaia), Gobela ibaia hidraulika aldetik egokitu eta ingurumen aldetik hobetzeko proiektua. Errekagane tartea.
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektu eguneratua. II. Fasea. Urbi-Bengoetxe tartea.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian, Forondako aireportuaren parean Zalla ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian, Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Gaubea udalerriko (Araba) Osma herrian, Tumecillo ibaia ubideratzeko proiektua.
- Abetxukoko oinezkoen pasabidea handitzeko proiektua.

Halaber, Lanen arloarekin elkarlanean aritu gara presa txikiak kentzeko proiektuetan Baia, Artibai eta Leitzaran ibaietan, haien iragazkortasuna hobetze aldera.

Plangintza eta Berrikuntzaren Arloarekin batera aztertu egin da Oria ibaian hiru presa txiki iragazkortzeko/eraisteko lanen eraginkortasuna eta aztertu egin dira aukera desberdinak zentral hidroelektrikoen eraginak murrizteko Aingiren beheazko migrazioan Urola ibaian.

Beste alde batetik, Plangintza eta Berrikuntza arlo horrekin lan egin da zoru eta lurrazpiko uretan ematen diren kutsadura gertakarien analisisan, hainbat jarduerak duten eraginaren analisia Unitate Hidrogeologiko desberdinetako baliabide urtarretan, eta lurrazpiko uren kalitate eta babesaren inguruko ikerketak.

Azkenik, Lanen eta Plangintza eta Berrikuntza arloekin eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara Arabar Lautadaren horniketa eta saneamendurako aukera desberdinak aztertzen.

7.3 Uholdeei AURREA HARTZEA

Denboraldi honetan Arriskugarritasun- eta Arrisku-Mapak bukatu dira, 2007/60/EE Zuzentarauak ezarritakoaren arabera, Estatuko araudira egokitu zena 903/2010 Errege Dekretuaren bitartez. Kartografia hori kontsulta publikora zabaldu zen, eta URAko kide-anitzeko organoen oniritzia jaso ondoren, amaitutzat eman zen eta Ingurumen Ministeriora igorri zen hark Europar Batzordera bidal zezan.

Lan horren ondorioz URAko bisorean Uholde Arrisku Handiko Eremuei (UAHE) buruzko kartografia eguneratua argitaratu da, orotara 400km ibai-tarteri dagozkionak, lehentasunezko fluxu-guneak barne. Kontuan izan da, era berean, agiango jabari publiko hidrauliko kartografikoa, eta esparru horretan lan historiko eta geomorfoligkoak egin dira.

URAREN AHOLKUA

Ikusi

Era berean, UAHEtik kanpo dauden eremuen kartografiaren eguneraketan lan egin dugu, eta beste 400km-ko ibai-tarteko kartografia egin dugu. Lan horien emaitza balioztatzen ari gara eta 2014ko lehenengo hiruhilabetekoan argitaratuko da.

Beste alde batetik, arriskugarritasunaren kudeaketarako planak egiteko kontratua esleitu da 2013ko uztailean eta momentu honetan lan honen lehenengo bi faseak amaitu dira, hau da, aurreko lan-faseetako informazioa bildu eta gaur eguneko egoerari buruzko diagnosia egin. Lan horren ondorioz, eta Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin batera (DAEM), hainbat lan egin dira Uholde Arriskuaren Kudeaketa Planak egiteko oinarri izango direnak, eta batez ere neurri-plana zehazteko, bai egiturazkoak zein ez egiturazkoak. Atariko emaitzak aurkeztu dira hala estatu-maila, nola europar mailan.

Batimetria lanei dagokionez, lanak hasi zirenetik 2013ko abendu arte 1.170 km ibai-tarteko batimetria karakterizatu egin da. Gainera, Euskadiko urtegien batimetria egin da.

Informazio Geografikoaren eta Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoentzako Sistemei dagokionez DAEMarekin batera lan egin da uholdeen iragarpen goiztiarrean 2013ko lehenengo seihilabetean emandako gertakarietan. Iragarpen ahalmenaren eta ibaien momentuko egoera ezagutzeko, eta horien bitartez uholde gertakarien jarraipenak egiteko hobekuntzak lortzeko bidean kontrol-hidrometrikorako 5 puntu berri jarri dira eta dauden emariak neurtzeko estazioen ikerketa zehaztua egin da gastu kurbaren eraginkortasuna balioztatzeko, ur-emarien neurketa zuzenak egiten eta zehaztasuneko eredu hidraulikoak erabiltzen; hori egiteko

ur-emariak neurtzeko estazioen zehetasuneko batimetria egin da.

Azkenik, uholdegarritasun-arriskuari buruzko hainbat azterlan ikertu dira obra-baimenen espedienteen esparruan aurkeztutakoak

7.4 Lanak

Aldi honetan hainbat ekintza prestatu eta egin ditugu plangintza hidrologikoan aurreikusitako zenbait helburu lortzeko: ur-masen egoera ona eta babes egokia, ur-eskariei erantzutea, uholdeen aurkako defentsa, eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek egokituta hainbat gauza lortzen dira, hala nola kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehortearen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2013. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Zuiako kolektore-sarea egiten jarraitu da.
- Oiongo saneamendu-sarearen 2. eta 3. faseak egiten ari gara.
- Hitzarmena LANVIrekin Lantziegoko ureztapen-sistema hobetu eta modernizatzeko.

- Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan jarduketa hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren barne hartuta dauden proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.
- Vitoria-Gasteizko hornidura-hodia bitan banatzeko lanetan aurrera egin da, Abetxukoko by-passa.
- Abetxukoko pasabidea handitzeko lanak hasi dira
- Gaubea udalerriko Osma herrian Tumecillo ibaia ubideratzeko lanak bukatu dira.
- Eskuernagako Hondakin Uren Araztegiaren lanak jarraitu dira, Arabako Foru Aldundiaren zuzendaritzapean.
- Getxon (Bizkaia), Gobela ibaia hidraulika aldetik egokitu eta ingurumen aldetik hobetzeko proiektuaren lanak hasi dira, Errekagane tartean.
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektuarekin jarraitu da: Bolueta-Urbi tartea. Gainera hurrengo tartearekin hasi gara: Urbi-Bengoetxe tartea.
- Arratia ibaia bideratzeko lanak Areatzan.
- Ermua-Mallabia saneamendua bitan banatzeko obren 1. Fasearen lanekin jarraitu egin da.
- Donostiako Loiola auzoan, Euskotren Zubia ordezkatzeko obrak egiten jarraitu dugu.
- Donostia Santa Katalinako kolektorea bukatzeko lanekin jarraitu dugu, lan horiek zuzendaritza Añarbeko Uren eskuetan daude.
- Hernaniko Karabel zubia ordezkatzeko lanak hasi dira

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Uraren Euskal Agentziari dagokio, barne-arroetako, zein barne-arroetakoak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikusi eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da.



8. KOMUNIKAZIO ETA SENTSIBILIZAZIOA

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

Ezer baino lehen azpimarratu beharra dago Erakunde-Harremantarako Zuzendaritzaren desagerpenak hainbat aldaketa ekarri dituela lanen antolaketan, baina lan ildo nagusiak mantendu egin direla.

8.1 URA-uraren EUSKAL AGENTZIAREN KOMUNIKAZIOA

Uraren Euskal Agentziaren helburu nagusietako bat Komunikazio eraginkorra eta gardena lortzea da.

Web-gunean gardentasunera bideratutako atari bat ireki da eta bertan orain arte aipatzen ez ziren edo osatu gabe zeuden gaiak buruzko informazioa eskegitzen hasi gara hainbat arlotan: ekonomikoa, kontratazioa, baliabideen kudeaketa eta guztiak, gure ustez, noski, herritarrak ezagutu beharrekoak.

Lan-ildo horrek orain arte kanpo-komunikazioan egiten zena indartzeko balio izan du:

PRENTSA KATINETEA, horren bitartez Uraren Euskal Agentziaren jarduerari buruz informatzen jarraitzen da. Horrekin batera komunikabideen kontsultak erantzun dira, 128 urte honetan.

KONTSULTA BUZOIA: horren bitartez erantzuten dira herritarrek Agentziara helarazten dituzten kontsultak, iradokizun, keak etab. Aurten 195 kontsulta.

WEB-GUNEA: Bisita kopurua igo ditu eta 60.533-ra heldu dira. Web orriaren berriztatzea 2014an bukatuko da.

SARE SOZIALAK: abian daude dagoeneko: twitter, you tube, flickr eta bertatik URAREN lanari jarraipena egiten zaio formatu desberdinen bitartez: testua, argazkiak, bideoak...

Barne komunikazioari dagokionez 2013an zehar funtzionatzen jarraitu du intraneta URAREN langileen arteko komunikazioa eta parte-hartzea sustatzeko sortu zen tresna.

Halaber prestatzen jarraitu dugu barnerako eguneroko prentsa-dosiera, ura eta Uraren Euskal Agentziarekin zerikusia duten berriak biltzen dituen, eta hilabetean behin barne komunikaziorako buletina egiten da albiste, jarduera edo ekintza nagusiak aipatzen dituen.

8.2 sentsibilizazio eta HEZKUNTZA JARDUERAK.

8.2.1. online ikastaroa: "URAREN ARLOKO HEZKUNTZA, GAIKUNTZA ETA INGURUMEN-SENSIBILIZAZIOA" +

2013an Uraren Euskal Agentziak "Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta ingurumen-sentsibilizazioa" izeneko on-line ikastaroa abiarazi zuen, politikariei eta Latinoamerikaren arloko teknikariei, zein uraren kudeaketaren inguruko profesionalei eta arduradunei, ingurumen-hezitzaileei eta gaian interesa duten ikasle eta lizentziatu guztiei zuzenduta.

Ikastaro horren helburua da gizartearen kultura- eta pentsamolde-aldaketaren alde egingo duten argudioak ematea, aldaketa horren bitartez ur eta ibaiez dugun kontzeptua (ur-biltegi hutsak), uraren ekoizpenerako baliagarritasunak,

funtzioak eta lurraldeari, ingurumen, ekologia, paisaia, gizarte, kultura eta emozio eta zentzumenen alorrean, lotutako eta nazioarteko ingurumen-lege berrietan eta UEZen jasotako balioak aldatzerik izan dadin.

8.2.2. URA EKITALDEA

URAK, 2011. urtetik Udalsareko (Iraunkortasunaren aldeko Udalerrien Euskal Sarea) kide izanik, URAREN ekitalde bat antolatu zuen I hoberekin batera, uraren eta ingurune hidrikoaren eta horrek toki-eremuan dituen eraginaren inguruko gai ezberdinei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatzeko helburuarekin. Proiektuan 14 udalek eta bi mankomunitatek esku hartu zuten.



En 2013an uraren koadernoan eginda Hiri eremuetako ura eta ingurune hidrikoa izenburupean, Ekitaldearen emaitzak laburbiltzen dituen eta IHOBE ekoiztuko du 2014ko hasieran.

8. 2. 3. IBAIARI BURUZKO IKASGELAK ETA DIBULGAZIOZKO HITZALDIAK.

Dibulgaziozko ekintzen helburua da ur-inguruneari buruzko ezagutza areagotzea, uraren kultura berriaren printzipio eta oinarriak ikuspegi ekosistemiko eta holistikoaren bitartez ezagutaraziz.



URAREN AHOLKUA

Ikusi

8.3 EKITALDI ETA JARDUNALDI TEKNIKOAK .

2013. urtean zehar hainbat ekitaldi, eztabaida-foro eta jardunaldi teknikoak izan dira, eta horien gizartearentzat oso interes handia duten gaiak eta arazoak jorratu dira. Horiek guztiak funtsezko tresna dira beste erakunde eta entitateekin nahiz herritarrekin komunikatzeko.

8. 3.1. Uraren mundu EGUNA 2013.

URAK Uraren mundu eguna 2013 ospatu zuen martxoaren 22an Madariaga Dorretxean, Busturian.

Ekitalde horretan zuzendaritza nagusitik, azpimarratu nahi izan zen garai hauetan gutxiagorekin gehiago lortzeko beharra, guztiok bat eginez eta elkarlanean. Horrekin batera, arroen bulego-buru berriak aurkezteko tarte ere egon zen, eta zuzendaritza berriak jasotako harrera ona eskertzeko.



Plangintza eta Lanen Zuzendaritzatik Plan hidrológicoa lortzeko eta adosteko egindako lana azpimarratu zuen. Horrekin batera URAK egindako obrak aldarrikatu zituen hainbat xede lortzeko, eta uholde arriskuen prebentzioan dauden erronkak

Jabari Publikoaren Kudeaketarako zuzendaritzatik azpimarratu nahi izan zen aurkeztu diren espediente guztien kudeaketan egindako lan gogorra, epeen barruan amaituta egoteko, eta bide batez, kudeaketa horretan laguntzeko abian jarri den espediente kudeatzailean parte hartu duten guztiei eskertu zitzaizkien egindako ahalegina. Horrez gain, zuzendaritza honek larrialdiei erantzuten aritzen dela ere azaldu zuen, uholdeak direla-eta edo SOS deiak egindako abisua direla-eta, eta ibaiertzak mantentzeko zerbitzuaren lanaz hitz egin zuen.

8.3.2. "Uraren astea"

URAREN ARLOKO LANKIDETZAREN
NAZIOARTEKO URTEAN 2013.



URAK eta Unesco etxeak sustaturiko "Uraren Astea" Donostia eta Hondarribian egin zen maiatzak 27 eta 31 bitartean, eta zine ziklo bat eta eztabaidak eskaini zituen urak bizitzaren garapenerako duen ezinbesteko rola inguruan.

Ana Oregik -Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikarako Sailburuak eman zion hasiera Uraren Aste honi.

Helburua izan zen herritarrak sentsibilizatzea uraren arloko lankidetzak duen garrantziaz, ezinbestekoa baita nazio eta komunitateen arteko bakea eta ziurtasuna mantentzeko. Baita errekurtsio hidrikoak era justu eta bidezkoan banatzeko ere. Aldi berean, ezagutarazi nahi izan dugu ur esparruko lankidetzak planteatzen dituen erronkak eta errekurtsio hidriko mugatuek pairatzen dituzten presioak."

Iñigo Ansolak, Uraren Euskal Agentzia- URAREN zuzendariak, nabarmendu nahi izan zuen ura gure planetako baliorik preziatuenetakoa dugu, eta, bere kudeaketa egiterako orduan, ezinbestekoa dela gizakien arteko elkartasunean oinarrituriko printzipio etikoa aintzat hartzea.



BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

Jardunaldiok balio izan zuten ezagutarazteko herrialde batzuetan dituzten zailtasunak ura kudeatzeko garaian, gureekin alderatuta, ez hain onak. Ingurumen zein arlo instituzionalean dituzten berezitasunengatik, eta ingurumen zein pertsonengan ondorio oso nabarmenekin askotan. Horra hor ur esparruako nazioarteko lankidetzaren garrantzia, eta “Uraren Aste” honetan jorratu nahi izan zena.

8.3.3. XXXII AEAJ Jardunaldiak

Jardunaldi hauek nazio mailan arloko profesional, erakunde eta enpresen bilgune nagusietako bat bihurtu da, ezagutzak partekatze eta harreman tekniko eta komertzialak estutzeko asmoarekin.

URAK jardunaldi hauek baliatu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Hornidura eta Saneamendu Esparru Erregelamendua aurkezteko.

8.4 Laguntzaile ekimenetan Herritarren Sentsibilizatzeko.

URAK hiru kirol-probaren laguntzaile izan zen EAEko lurralde bakoitzean, horiek ezagutzera emateko, eta, bide batez, gure urak ezagutzeko balio duten ekintzak sustatzeko asmoarekin.

Donostian URAK 2013ko Garbibai Urumea Gondolin Race probaren laguntzaile izan zen. Olgetarako jardunaldi bat izan zen herritarren kontzientzia piztea bilatzen zuena ibaiko zaborra garbitzen zuten bitartean auzolanean. Paddle surf taldeek Urumean zehar nabigatu zuten zaborra jasotzen zuten biartean, eta ondoren jasotakoa erakutsi egin zen.

Bilbon Triatloiaren laguntzaile izan zen, eta Gasteizen, Challenge-Vitoriarena. Bi proba horien zati bat ingurune urtarrean ematen zen eta hiriguneetan murgiltzen ziren, URAREN lana ikusgai geratzen zelarik.

8.5 nazioarteko lankidetzaren arloan.

Uraren Euskal Agentzia eta Euskadiko Lankidetzaren Agentziak elkarlanean dihardute bien arteko lankidetzaren sustatuko duen hitzarmen bat prestatzen URAK zeramatzan nazioarteko uraren-lankidetzaren ekintzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara pasatzeko. Akordio horren harira URAK uraren kanonaren bitartez lortukoaren %5a - 2008tik PNUDekin duen akordioa - Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziari emango lioke, hark kudeatu dezan.

Bien bitartean URA akordio batera heldu da Art-PNUDekin proiektu bat finantzatzeko Ekuadorren. Akordio horren helburu orokorra izango da lurralde garapena indartzea parte-hartze prozesu komunitarioetarako dauden ahalmen instituzionalak egituratuz, Duendes Ibairen mikro-arroa kudeatzeko bidea bezala, Carchi erkidegoaren muturreko hego-ekialdean kokatua, eta García Moreno, Los Andes eta Bolívar parrokiaren artean.

Ura inork eta ezerk hautsi behar ez lukeen ispilua da. Urak bizitzaren jatorriaren aurretik etorkizun emankor baten alde lan egiten du: guztiok merezi dugun etorkizun horren alde.

JOAQUÍN ARAÚJO



2013ko
Memoria



PERTSONA HELBURU



2013Ko
MEMORIA



PERTSONA
HELBURU

